

Cruz Abarrategi Leaniz-Barrutia

*Eskoriatza,
Gipuzkoa
(1917-2007)*

Aurkibidea

Biografia



Ama Eskoriatzako Apotzaga elizatekoa eta aita Arrasatekoa. Aitak Soraluzeko "Real Fábrica de Cañones" fabrian egiten zuen lan eta Cruz bertan jaio zen. Soraluzen egin zituen lehenengo ikasketak, maristen ikastetxean. 11 urterekin seminarioan sartu zen eta abade izendatu zuten 1942an. Eskoriatzako Bolibar elizateko abade izan da azken 60 urteotan.

Zintak

ESK-024

- **Proiektua:** Eskoriatzako argazki fondoaren dokumentazioa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Parra, Leire
- **Data:** 2005-01-01
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** CD

ESK-025

- **Proiektua:** Eskoriatzako argazki fondoaren dokumentazioa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Parra, Leire
- **Data:** 2005-01-01
- **Iraupena:** 45 min
- **Euskarria:** CD

ESK-036

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Eskoriatza.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-01-01
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

ESK-037

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Eskoriatza.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-01-01
- **Iraupena:** 55 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar

Pasarteak

1. Biografiaren inguruko datu aipagarriak

- **Erref:** ESK-036/001
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Biografiaren inguruko datu batzuk. Gerrako urteak non eman zituen. 11 urterekin Saturrarango seminarioan sartu zen; ondoren Gasteizko Seminaria joan zen. 1942an apaiz egin zen. Abade bezala lehenengo urteak non eman zituen. Bolibarren 61 urte inguru daramatza. Aldaketa handiak egon dira auzoan: bideak, telefonoa...

Transkripzioa

- Lehen esan dozu pare bat hillabete barru larogeta bederatzi urte eingo dozuzela, ez?
- Larogeta zortzi urte. Eta hemendik hille bira, urrillan, octubre, ba, orduan

beteko dittut, jangoikuak nahi badau, larogeta bederatzi urte. Bederatzian sartzen naiz orduan. Asike... urte askon pisua aldian.

- Bueno, baiña ondo eruandakuak...

- Bai, tokau jaku gerran be ibiltzia, ezta? Baiña gerrako hiru urtiak pasatu nittuan: lehelengo urtia Logroñoeko seminarioan; bigarrena militarizauta Soraluzeko kañoi fabrikan, [han] komeni zitzaidan [lana]; ta gero hirugarren urtia Logroñon berriz, seminarioan ikasten eta soldadutza egiten han batera. Halaxen gerra-denporia, bai. Eta, bestela, ba, Saturrarango seminarioan, mutikua nitzala hamaika urtekin juan nitzan hara eta han lau urte egin nituan ikasten, ta gero Gasteizko seminarioan. Han apaiztu nitzan milla bederatzirehun eta berrogeta bigarren urtian. Eta neure apaiz-lanak egin nituan hasiera baten hiru hillebete eta hiru egun garai horretan, denpora horretan, Gasteiztik gertuan, Zigoitian, Gorbeixa onduan. Eta oso pozik egon nitzan han, e? Oso gustora. Eta hemendik Bolibartik gertu samarrian zelan dagon, ba, han adiskide onak itxi nittuan eta beti be hara juten naiz ta eurak be etortzen dia hona ta holan oso ondo jiratzen naiz. Eta hemen Bolibarko toki baketsu honetan, ba, urte mordo bat daroiat, hirurogeta bat urte, hirurogeta bigarrenera nijoa. Bai. Eta lehenao ez bide, kamiñorik, ez telefono, ez... En fin, oso atzeratuta, hemen inguruko auzo danak bezelaxen, ezta? Baiña gero, ba, ahalegin pixka bat be tokau jata egitia, ezta, saio horretan, bai kamiño zeretan, bai bestela be, telefono ta... beste gauza askotan. Hartu-emon onak neuzkan Donostia baten ta Madrillen bertan ere bai eta... Halaxen, bai.

2. Soraluzera bizi izatera zergatik joan ziren

- **Erref:** ESK-036/002
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:03:20. **Bukatu:** 00:05:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Soraluzen jaiotakoa. Ama, Apotzagakoa (Leanizbarrutia abizenek) eta aita, Arrasatekoa. Eibarko Ipurua baserrian amaren ahizpa bat bizi zen. Don Policarpo Larrañaga abadearen bitartez, aitag Soraluzeko Kanoi Fabrikan lana aurkitu zuen. Ipurua ingurua nolakoa zen.</p>

Transkripzioa

- Esan dozu, bueno, oin dala larogeta zortzi urte jaixo ziñala... Plazentzian?
- Jaio nintzan ni Soraluzen, Placencia de las Armas, bai. Eta nere gurasuak ez zian Soraluzekuak, ezta? Baiña ama zan Apozaga Eskoriatzako auzo batekoa, Apozagakua. Gero hemendikan Bolibartik Apozaga parrokian arduria euki neban urte mordoska baten, ezta? Han bertako apaiza hil zanian, ba, neuk jarraitu neban han urte mordo baten. Eta nere aitta Arrasatekoa zan, bai, Abarrategi; ama Leanizbarrutia Apozagakua, bai.
- Eta aitta Arrasatekoa?
- Bai, bai.
- Eta zelan, ba, Soraluzen...?
- Ba, halaxen, ba...
- Halan gertau zan? Halan suertau zan, ez?

- Bai, bai, bai, gertatu zan, bai. Nik badakit bai, ba, Soraluzera jutia gure gurasuak badakit nola izan zan. Eibarren zeuden eta Ipurua baserrian han nere aman aizta bat zeon ta han... gero handik hartu-emana eukitzen eben. Han Concepcionistas mojen konbentuan ere, ba, geure senidea bazeon, eta hango kapellaua oso laguna zan apaiz oso famatu batekin, Soraluzekua zan, Don Policarpo Larrañaga. Eta [apaiza...] juten zan eta haren familia Plazenzian, Soraluzen kañoi fabrikan toki... mailla onetan zeuden eta haren bittartez gure aita izan zan kañoi fabrikan han postu bat hartzia. Eta gero ni, ba, Soraluzen jaixo nitzan. Bai.

- Eta, orduan, aman aitzia bertan Ipurua basarrixan...

- Ipuruan, bai, bai. Han bizi zan eta bertan hil zan. Bai, bai, Eibarren, bai.

- Eta zuk ezautu zenduan basarrixa edo...?

- Bai, bai. Ni Soraluzetikan hara juten giñan bai San Juanetan ta beste... edozein sasaitan ere bai.

- Eta zelakua zan orduan inguru haura? Gogoratzten dozu?

- Bai, oin oso aldatuta dao haura, e? Ta basarria eskas samarra zan, ezta? Baiña kaletikan gertuan zaon. Bai.

3. Don Policarpo Larrañaga

- **Erref:** ESK-036/003
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:05:55. **Bukatu:** 00:09:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Don Policarpo Larrañagaren inguruko gogoetak. Lan asko egin zuen bizi osoan zehar; herrian oso estimatua... Isasiko komentua.

Transkripzioa

- Esan dozu Don Policarpo Larrañaga. Zuk ezautu zenduan?

- Bai, Don Poli, bai... Don Poli. Ha soziologo zera zan, e, oso ospetsua.

- Bai, Eibarren, gaiñera, be oso gizon...

- Han egon zan apaiz.

- ... langillia ta...

- Don Poli, bai. Buf! Famatua zan. Ez Eibarren bakarrik, bestela be Euskal Herri danian, e!

- Bai, gaiñera berak sortu zeban, ez, "Sindicato de Obreros vascos" edo...?

- Bai, oso... lan asko ein eban, bai, euskeraren alde ere bai eta gero horixen, sozialmente.

- Zeuk ezautu zenduan bera?

- Asko, bai.

- Eta zelakua zan edo...?

- Bai, bai, bai, oso haundia zan eta oso burutsua eta apaiz ona, e! Ona. Don Poli esaten genion danok eta Eibarren, ba, oso estimatua izan zan, bai. Gerra garaian uste det pixkat bat denporalditxon baten Frantzian ere egon zan aldatuta apurtxo bat. Ezta? Ta Frantzian be... Uste dot Baionan zala. Neuk ere agurtu neban iñoiz han Frantzian. Don Poli, famosua zan haura.

- Eta esan dozu beran familixiak, aittak-edo, kañoi fabrikan lagunen bat zekala?

- Bai, klaro, bere familikoak kañoi-fabrikan Soraluzen, ba, aginpidia zeuken, ezta? Ta haren bittartez ta han Ipuruatik gertuan han Konzepzionisten kapillaua ere ta han biltzen ziren, ezta? Ta neu be [egoten nitzan] han.

Geure senideak monjak eta bazeuden han ere, ezta? Eta haren... handik bittartez izan zan nere aitta Plazenzian zertzia.

- Hau esaten dozun konbentuau, Konzepzionistena, nun zeuan?
- Han... han dago!
- Santaiñes kalian? Ipurua basarrixan behealdian?
- Hori da, bai. Osea, Eibarren han tontorrian, Isasi.
- Markeskua...?
- Markeskua ta hori, haintxen, bai. Han Escuela zera egon zan orduan, ez dakit oin jarraitzen daben han... Escuela de Armeria be han zan.
- Baiña zuk ezautu zenduan konbentu zaharra, ez?
- A, klaro! Bai, konbentu antiguala, haundixa.
- Eta zelan gogoratzen dozu? Zelakua zan?
- Ba, haundixa eta oso gauza baliosuak be bazeuzkan, bai. Oin ez naiz gogoratzen, ezta? Baiña bai.
- Eta monja asko zeren bertan?
- Bai. Oin nik ez dakit zenbat leetxe egongo zian, baiña... Ez daukat goguan hori.

4. Soraluze gerra aurretik, herri txiki bizia zen

- **Erref:** ESK-036/005
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:09:55. **Bukatu:** 00:12:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Santa Ana kalean bizi izan zen. Soraluze, herri txikia; umore onekoa. Armagin lantegi txikiak pegora guztietan. Industria Soraluzen. Kanoi Fabrika. Baserritarrak eta kaletarrak.

5. Aitaren zeregina kanoi Lantegian

- **Erref:** ESK-036/006
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:12:00. **Bukatu:** 00:14:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Lantegi handiak: Atxotegi; Arias... Kanoi lantegia. Aitak, sereno bezala lan egiten zuen bertan.

6. Santa Ana kalea; mojen komentua

- **Erref:** ESK-036/007
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:14:30. **Bukatu:** 00:17:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Santa Ana kalea nolakoa zen. Klausurako mojak. Kalea zeharo aldatu da azken urteotan. Herriko jendearekin harreman estua zuten mojek. Prozesioak zeudenean ere, komentutik pasatzen ziren.</p>

7. Maristen ikastetxea Soraluzen

- **Erref:** ESK-036/008
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:17:50. **Bukatu:** 00:20:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

<p>Eskola kontuak. Geltoki ondoan, maristak zeuden. Maristen Ikastetxeko inguruko azalpenak. Dotrina ere bertan ikasten zuten. Neskentzat, Mertzedariak zeuden. Haiek ospitalean ematen zituzten klaseak.</p>

8. Eskola kontuak; umetako ibilerak

- **Erref:** ESK-036/009
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:20:10. **Bukatu:** 00:23:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Maristekin ikasitakoa. Apaizgai egon zirenean ere, hartu-eman handia izan zuten beraiekin. Umetako kontuak. Ostegunetan jai izaten zuten.

9. Maristen ikastetxea Soraluzen; Cinema Gayarre

- **Erref:** ESK-036/010
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:23:30. **Bukatu:** 00:25:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

<p>Ume asko zeuden maristen eskolan ikasten. Herriko zinera joatea debekatzen zieten umeei. Cinema Gayarre. Inguruko herrietatik ere ume asko joaten ziren bertara ikastera.</p>

10. Umetako jolasak; errekan igerian nola ikasten zuten

- **Erref:** ESK-036/011
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:25:15. **Bukatu:** 00:28:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Umetako kontuak. Cinema Gayarre. Futbolean, pilotan egiten zuten. Errekara ere joaten ziren jolastera. Igeri egiten nola ikasten zuten. Errekako kontuak. Poliki-poliki erreka zikinduaz joan zen. Errekan zeuden presak.

11. Urtean behin Debara joaten ziren; erreka kontuak

- **Erref:** ESK-036/012
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:28:10. **Bukatu:** 00:30:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Urtean behin Debara joaten ziren. Saturrarango seminarioan egon zenean, hondartza bertan zuten. Arrantzan egitea ere gustatzen zitzaien. Soraluzeko erreka.

12. Errekaren inguruko azalpenak; arrantzan egiteko teknikak

- **Erref:** ESK-036/013
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:30:05. **Bukatu:** 00:33:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Arrantzan egiteko teknikak: eskua; butroioa; e.a. Loinak, barboak, angirak...

harrapatzen zituzten. Etxeetako zikinak zuzenean errebara botatzen ziren. Soralezko lehenengo kale-garbitzailea; gauez, sereno lanak egiten zituen.

13. Abadeak; mezak. Kongregazioak

- **Erref:** ESK-036/014
- **Iraupena:** 0:04:45. **Hasi:** 00:33:35. **Bukatu:** 00:38:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

Laburpena:

<p>Abade asko zeuden garai batean herrian. Mezak nola ematen zituzten; noiz. Kongregazioak: Luistarrak; Mariaren alabak; Adoración Nocturna. Non elkartzen ziren. Ospakizunak.</p>

14. Ermita eta Ama Birjinak. Prozesioak eta ospakizun erlijiosak

- **Erref:** ESK-036/015
- **Iraupena:** 0:05:40. **Hasi:** 00:38:20. **Bukatu:** 00:44:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Prozesioak Soralez. Umetako gogoetak. Ezoziko Ama Birjina. Dorletako ama. San Roke ermita. Soralezko jaiak.</p>

15. Jai egunetan, mendira joateko ohitura

- **Erref:** ESK-036/016
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:44:00. **Bukatu:** 00:46:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

Jai egunetan zer egiten zuten. Bezperak. Umetako kontuak. Mendira joateko zaletasuna.

16. Maristen ikastetxearen inguruko zenbait ohar

- **Erref:** ESK-036/017
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:46:25. **Bukatu:** 00:47:25

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Maristen ikastetxea, parrokiaren parean zegoen. Ez zuten arropa berezirik eramaten. Saturrarango eta Gasteizko seminarioan ordea, bai.

17. Kale saltzaileak: barkileroa

- **Erref:** ESK-036/018
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:47:25. **Bukatu:** 00:49:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Barkileroa, jai egunetan joaten zen Soralezera Elgoibartik. Izoziak ere eramaten zituen. Etxean diru pixka bat ematen zieten jai egunetan.

18. Dotrina eta jaunartzea

- **Erref:** ESK-036/019
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:49:35. **Bukatu:** 00:51:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Jaunartze txikia eta handia. Orduko kontuak. Dotrina ongi ikasita eraman behar izaten zuten.</p>

19. Atxorrotzeko iturria

- **Erref:** ESK-037/001
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

Atxorrotz inguruan iturri bat egin zuten; Santa Kurutz egunean inauguratu zen.

20. Eskoriatzako bainuetxeak

- **Erref:** ESK-037/003
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:01:20. **Bukatu:** 00:03:05

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Atxorrotz inguruan dagoen iturriaren inguruko zenbait azalpen; toponimia. Eskoriatzako bainuetxeak; Santa Ageda... Kanpotik jende asko etortzen zen sasoi batean bainuetxeetara.

21. Abadegai sartzeko erabakia

- **Erref:** ESK-037/005
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:03:15. **Bukatu:** 00:07:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Seminariora sartzeko erabakia nola hartu zuen kontatzen du; bere osabaren eragina (karmeldarra zen). Bere ibilbidea gogoratzen du: Saturrarango seminarioa, Gasteizkoa... Gerra garaian, bi urte egin zituen Logroñoko seminarioan; ondoren beste zenbait urte egin zituen berriz ere Gasteizko seminarioan.</p>

22. Gorbeako haitzuloan bizi izandakoa

- **Erref:** ESK-037/006
- **Iraupena:** 0:13:15. **Hasi:** 00:07:15. **Bukatu:** 00:20:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

Gorbean egon zeneko zenbait kontu aipatzen ditu: haitzuloak; mendia... Haitzulo haietan beste abade biren gida izan zeneko eguna gogoratzen du; nola egon ziren ordu askotan galduta...

23. Umea zenean seminariora

- **Erref:** ESK-037/007
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:20:30. **Bukatu:** 00:21:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Umetan seminarioan sartu zeneko zenbait kontu.

24. Seminarioko bizimodua

- **Erref:** ESK-037/008
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:21:25. **Bukatu:** 00:24:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Seminarioko bizimodua nolakoa zen umeentzat. Jolasean ibili eta itsasoan ere bainatzen ziren. Eguneroko bizimoduaren berri zehatza ematen du.

25. Eguneroko bizimodua seminarioan

- **Erref:** ESK-037/009
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:24:30. **Bukatu:** 00:26:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Seminarioko bizimodua nolakoa zen azaldu eta eguneroko bizimoduaren berri zehatza ematen du.

26. Gasteizko seminarioa

- **Erref:** ESK-037/010
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:26:20. **Bukatu:** 00:28:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Gerra aurreko urtean Gasteizko Seminarioan gertatutako anekdota kontatzen du.

27. Saturrarango seminarioa

- **Erref:** ESK-037/012
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:29:40. **Bukatu:** 00:30:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Saturrarango seminarioko bizimoduaren inguruko zenbait azalpen ematen ditu.

28. Seminarioko bizimodua; hainbat gogoeta

- **Erref:** ESK-037/013
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:30:30. **Bukatu:** 00:33:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Saturrarango seminarioan zer ikasten zuten aipatzen du; latinak garrantzi handia izaten zuen. Aisialdi denboran zer egiten zuten. Gasteizko seminarioaren irekiera ekitaldira joan ziren Saturrarandik; Alfonso XIII.a ere joan zen bertara.

29. Euskararen erabilera seminarioan

- **Erref:** ESK-037/015
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:41:10. **Bukatu:** 00:44:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Saturrarango seminarioan zer ikasten zuten aipatzen du. Euskararen egoera Gasteizko seminarioan. Manuel Lekuona irakasle izan zuen Gasteizen.

30. Joxe Migel Barandiaran, seminarioko irakasle

- **Erref:** ESK-037/016
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:44:45. **Bukatu:** 00:47:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

On Jose Migel Barandiaranek klaseak ematen zituen Gasteizen. Orduko abadegai batzuen izenak ematen ditu; denborarekin obispo egindakoak.

31. Seminarioko bizimodua

- **Erref:** ESK-037/017
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:47:00. **Bukatu:** 00:49:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa

Laburpena:

On Jose Migel Barandiaranek klaseak ematen zituen Gasteizen. Seminarioko bizimoduaren inguruan hainbat kontu esaten ditu.

32. Euskararen erabilera seminarioan

- **Erref:** ESK-037/018
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:49:15. **Bukatu:** 00:50:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Euskararen egoera eta erabilera Gasteizko Seminarioan.

33. Erljioa Errepublika garaian

- **Erref:** ESK-037/021
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:57:50. **Bukatu:** 00:58:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Erljioa Errepublika garaian. Giro politikoa nolakoa zen; ez zegoen elkartasunik partidu politikoen artean.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-25

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com